



batzar nagusia

Apirilaren 21ean Berbaroko Batzar Nagusia egin zen Plateruena Kafe Antzokian.

Urteko zita inportantea da Berbarotarrantzat; aurten apirilaren 21a. Iparraldeko gure herrikideentzat hausnarketa eguna. Bazkide beteranoak fidelenak. Neuretzako ere hausnarketa eguna izan da, konpromisoa hartu dut-eta hemengoaren berri emateko.


Urtaro berria iragarri digute. Neuk ere sumatu dut berritasunik, akaso, konfiantza handia dudalako ume eta gazteengan. Proiektu handien atzetik gazteak ikusi ditudalako, agian. Une batez, zalantza batek asaldatu gura izan nau, baina ez du lortu, elkarteak ondo bizirik dago.

Urteko zita inportantea da batzar nagusia, han bistaratzen baitira elkartearen osasuna eta indarra. Erritmo bizian doa, mikrofonoa eskurik esku, Korrikaren lekukoaren antzera. Bere txikian, Berbaroren handitasuna ikusi dut pantailan, entzun dut ahots gozoan. Sasoi batean botatako hazia eraldatu eta fruituak ditugu agerian. Baina oraindik hesi asko dago gainditzeko.

Abiadura Handiko Gizartean (AHG) bizi gara. Beste erremediorik ez dugu abiadura handira egokitzea baino. Mikrofonetik mezua atera du ahots gozoak: prest dago Berbaro, gazte, bizi, heldu...; datozela telebista digitala, gazteak, berbalagunak, literatura, euskera planak eta bestelakoak.

Galderarik ez? Guezan ba bazkaltzera.

Felice



umeak olgetan

Aurtengo berrikuntzen artean gazte arloak kudeatuko duen Olgetan proiektua aurkeztu dute langileek. Orain arte ere egin izan dira umeentzako ekintzak Plateruenan, baina orain osotasuna eman nahi izan zaio proiektuari. Aste barruko ludoteka, rokodromo eta guzti, eta igandeetako ekintzak. Proiektu honi aurre egitea erraza izango ez den arren, elkarteak gogotsu hartu du erronka, umeak gazte taldearen oinarria baitira, eta hauek era berean elkartearen harrobia.



www.topagunea.org/irakurri

irakurri, gozatu eta oparitu

Aurten. Haur Literatur Aretoak 18 urte beteko ditu, adinez nagusia izango da hemendik aurrera gure aretoa! Erakusketa Girotua, antzerkiak, Liburu Erraldoia, idazleekin elkarrizketak... hori dena eta gehiago, umeen artean irakurzaletasuna bultzatzeko egin duguna eta egiten jarraituko duguna.

Nagusien irakurzale-tasuna ere sustatu nahian, ordea, HLA-z gain, irakurri eta oparitu kanpaina jarri dugu aurten martxan.

Topagunearen laguntzaz, Euskal Herri mailako kanpaina honetan parte hartzeko aukera dugu, irakurri, oparitu eta gozatzeko aukera dugu, beraz.

Noiz arte:
apirilaren 23tik ekainaren 23ra.

Parte hartzeko:

- Pertsona batek liburutegian maileguan harturiko liburua irakurtzen du. Adin guztiei zuzendutako 100 liburu egongo dira kanpainarako egokitu den apal berezi batean.
- Liburu hori, beste pertsona bati oparitu nahi badio, egitasmoaren abantailez baliatuko da.
- Irakurritako liburuari dagokion fitxa bete (Zer gustatu zaion gehien? Norentzat egokia uste?...) eta liburutegian deskontu txartela emango diote.
- Txartel horrekin %25 merkeago lortuko du liburua Hitz, Urrike edo Irakurri liburu dendetan erosiz gero, %50 merkeago Berbaroko bazkide bada.
- Liburua erosi bai, baina ez du berarekin eramango, oparia jasoko duen lagunaren telefono zenbakia utziko du liburu dendan eta elkarteak helaraziko dio oparia lagunari.

Martxoak 31


Badira 70 urte Durango bonbardatu zutela

Aurten inoiz baino beteago etorri zaigu bonbardatzea gogoratzeko prestatutako egitaraua: hitzaldiak, dokumentalak, antzerkia, erakusketa, kontzertuak...

Kriskitin, Gerediaga eta Berbarok zazpi urte daramatzagu, egun hura ahaztu ez dezagun, Andra Marian oroitzapen ekitaldia antolatzen. Aurten ere, beste gauza horiek guztien artean, gure-gurea izaten jarraitzen duen ekintza xume bezain hunkigarria egiten ahalegindu gara. Zita martxoaren 31n izan zen, iluntzeko zortzietan. 94 urte bete zituen Mariak, malko artean, lore sorta jarri zuen hildakoen omenez jarritako plakan.



Maria, lore sorta jartzen hildakoen omenezko plakan





Liher Gonzalez eta Oihane Barrutia, gazte arloko aurpegi berriak

gazte arloa

Azken urtetan bezala, aurrerantzean ere, gazte arloari garrantzi berezia ematen jarraituko dugu. Eñaut joan eta langile berri bi etorri dira elkartera, **Oihane Barrutia** eta **Liher Gonzalez**, ondo etorri bie!

Oihaneren lana izango da, besteak beste, Haur Literatur Aretoa, Uda Topera proiektua eta begirale zerbitzuak kudeatzea. Liherrek Plateruenako Olgetan, gazteekin burutuko ditugun ekintzak eta udaleku itxiak izango ditu bere ardurapean.


badatoz oporrak...



Udaldiko oporrak gertu ditugunez, urtero bezala, Durangoko Udalaren Uda Topera 2007 proiektuaren lehiaketari aurrea hartuz, udaleku irekiak antolatzen hasi gara. Aurten ere, hiru programatan banatuko ditugu udalekuak:

- **Txiki-txoko:** 3-5 urte bitarteko umeentzat (ekainaren 25etik uztailaren 20ra).
- **Hiri kanpamendua:** 6-10 urte bitartekoentzat (ekainaren 25etik uztailaren 20ra).
- **Abentura:** 11-14 urte bitarteko gazteentzat (ekainaren 25etik uztailaren 6ra).

Udako aisialdirako alternatiba eskaintzea da gure asmoa, betiere euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko helburuarekin eta noski, ondo pasatzea!



UDALEKUAK

Euskera oporretan bor-bor 2007

ETKARRI ARANAZ
FINKOA
Uztailaren 15etik-26ra
230€ EZ BAZKIDE
210€ BAZKIDE
9-13 urte

ARAIA-ORIO
MUGIKORRA
Uztailaren 4tik-19ra
220€ EZ BAZKIDE
200€ BAZKIDE
14-18 urte

Matrikulatzeko epea maiatzaren 8ra arte.
Matrikulatzeko tokia: Berbaro (Finondo etxea) 946 20 19 18

Aurten ere badatoz udalekuak, beti bezala bi dira eskainiko ditugun aukerak: bata finkoa, bestea ibiltaria. Euskaraz bizitzea eta ondo pasatzea da gure asmoa, beraz animatu, etorri eta izena eman. *Matrikula epea maiatzaren 8an amaitzen da* eta urtetik urtera jende gehiago ari da etortzen.

• **Udaleku finkoa** Etxarri Aranazen izango da uztailaren 15etik 26ra, 9-13 urte bitarteko umeentzako da, matrikula 230 €, bazkideontzat 210 €.

• **Udaleku ibiltaria** Araitatik Oriora da uztailaren 4tik 19ra, 14-18 urte bitarteko gazteentzako eta matrikula 220 €, bazkideontzat 200 €.

argitalpen berriak

Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak.

Itziar Alonso-Arbiol (Koord.)

Argitalpena: Udako Euskal Unibertsitatea
Prezioa: 23 €

AMATASUNA ETA AITATASUNA
Proposamen berriak



Azken urte hauetan familia kontzeptua aldatu da, batik bat, familia-eredu desberdinak nagusitu direlako, eta egungo euskal familien erdia baino gutxiago sar dezakegu familia "tradizionalaren" ereduaren barruan. Batetik, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza Estatu Espainiarrean legala denetik, guraso izateko aukerak agertu dira, eta horrekin batera, eztabaida zabalduta da profesionalen artean eta gizartean. Bestetik, gaur egun, adopzioa ama eta aita izateko ohiko bidea bihurtzen ari da. Familia-eredu berri hauetan gero eta ohikoagoa da guraso bakarra izatea edota dibortzio-prozesutik pasatu diren gurasoak ikustea. Era berean, gizartearen gurasoen korrespontzabilitatea suspertzen duten lan-neurriak eta neurri legalak ere agertu berri dira. Alderdi hauek guztiak jorratzeko zenbait diziplinatoko profesionalen lana bildu da liburu honetan, besteak beste, esku-hartze estrategiak planteatzeko ondoko arazoak dituzten haurrengan: hiperaktibitatea, temperamentu zaila, ezgaitasun bat izatea, supergaitua izatea, eta behar berezidun haurren adopzioak.

ikimilikili...klik

Maiatzetik eta irailera bitartean sasoi ona da bizikleta zaleentzat. Nahiz eta bizikleta zaleek ez duten sasoiaren aitzakiarik behar noizbehinka eskapadak egiteko, bizikleta-kideekin alde egiteko, edota gaiaren gainean berba egiteko. Baina egia da, hile hauetan aukera zabalagoa dela, eguraldiak gehiago laguntzen baitu eta telebistak Giroa, udaberriko klasikoak, Tourra, Euskal

Bizikleta, eta Espainiako buelten berri ematen ditu. Horrez gain, garaiak alde batera utzita, hemen duzue urte osoan "zabalik" dauden web gune interesgarriak: **www.tropela.net** bizikleta zaleentzat web gune dinamikoa. Lasterketak jarraitzeko gunea. Porrak ere egin daitezke. Animatu eta parte hartu! **www.bizikletaz.com** denetarik aurkitu

dezakezue, ibilbideak, salerosketak, berriak eta lasterketen jarraipena.

Ibilbideak aipatu ditugu eta hona hemen beste web gune polit bat.

www.mendikoweb.com mendizaleentzako denetarik, berriak, argazkiak, ikastaroak.

Eskalada, mendiko ibilbideak eta orientazioa ere lantzen dute.

mendikoweb
1999-etik mendia interneten

bizikletaz.com
Sar zaiten orain Zaleen Txokora! bizikletaz.com txirrindularitzari buruzko edukirik euskarara itzuli duen argitaratzen ari den lehen alaria da. Euskadiko txirrindularitza amateur eta profesionala. Gainera, foroak, txata, blogak, lehiaketak...

tropela.eartea 1.955 kintela

SARPERA BERRIAK LEHIAKETA EUSKAL TXIRRINDULARIAK BABELSEAK ESTEJAN

Euskal Herriko Itzulia hasi da: Jada ezin da kintela berririk egin edo aldatu. Lehiatarako, idatzitako hemen erabiltzaile eta pasahitza: € p. Pasahitza ahaztuta?

Sariak eta babesleak
Gozatu lehiaketaz eta bertan irabaz ditzakezun sariak.

Lehiaketa
Arauk eta puntuak: kontuan izateko argibideak, eta puntuazio-sistema...
Txirrindulariak: txirrindulariek lortutako puntuak...
Saikapenak: lehiaketako saikapenak ikusi...
WAP: aurren Tropela zurekin, edonon! Hondartzan, mendian, nabigatu mugikorrekin...

6. etapa: Oartzum - Oartzum
Egilea: Curre aditua | Aitza: Euskal Herriko Itzulia

Oraindik gaur ikusi duzun erakustaldia gehiago sinesten ez duzun momentu honetan, zaien egunari buruzko informazioarekin natorituzue.

1. Leire (3.598 p.)
2. Zubizarreta (3.496 p.)
3. Iñmendiabal (3.341 p.)
4. goizane (3.297 p.)
5. nini (3.271 p.)
6. Pak (3.271 p.)
7. MIKEL AMEZTOLA (3.255 p.)
8. elertza (3.195 p.)
9. ederra (3.161 p.)

irritatzen



KORRIKA 15 Rakel Odiaga, gure lankideak, eraman du aurren Korrikako testiguala!

SAGARDOTEGIA
Martxoaren 3an, Zarautzen geldialditxo egin ondoren, Usurbileko Urdaira sagardotegira joan ginen Berbalagunekin batera.

KORRIKA TXIKIA
Durangoko kaleak euripean zeharkatu ondoren, karaokea, txokolate jana eta hainbat ekintza egiteko aukera izan zuten merkatu plazan zuek.

